

## Zer ari gera idazten? (2)

*Zeruko Argia*, 360. zk., 1970-01-25: 7.

Orain dala bost-sei bat arte idatzi nuan aldizkari onetan bertan izenburu onetako lantxo bat, eta baita dei ausart bat egin ere. Nik, egia esan, ez nuan orduan ausartzat jo; bainan gaur bai.

Oso gutxik erantzun baidiote deiari.

Idazleok barneratze berezi ta nabarmen bat ere ba dugu; alaxe aitortu nuan, gainera; ala ere, orrenbesterañokoa zanik ez nuan uste izan. Beste nere erriko zenbait gauza berrikasten ari naizen bezela jaso dut au ere nere kolkoan.

Ala ere, ikasi guzia ez da uka-gaia izan.

Berea xaloki esan dutenak ere ba dira, ta ez arloteenetarikoak; bestalde, elkar esan, elkar aditu, elkar izan eta elkar ekiteko bidetxur bat argitu nau gainera. Ez naiz, ez, bide zabalago bat joango litzaken lur-ertzean negarrez jarriko; bidetxur oneri jarraituko diot, eramaten naun arte.

Ta goazen.

Bainan lehendabizi ohar bat egin nai dut: nik ez dut emen egillearen izenik erabilliko, izen-gabe ori zor baitiet; lanak aitatuko ditut; ñori on dakion zerbait aitutzen ba det, ZA-ra idatzi beza, ta elkar jakiteko behar diren izen-zuzenbideak emango zaizkio.

### Egiñak eta argitaratu gabe dauden lanak

1. *Método de euskera radiofónico* (bizkaieraz)
2. *Euskeraren asiera umetxoentzat*, margodun irudi, izki aundi ta abesti bidez.
3. *Señora ama de casa - Etxekoandrea* izeneko liburu-lan bat bukatua dago.
4. Italeratik *Dorre dontzu bat* (Vittorio Calvino) ta *Argi ixoi bat* (Aldo Benedetti), ta frantzeratik *Elkorra* (Molière) ta *Nolabaiteko gurasoak* (Jean Cocteau) euskeratuak eta argitaratu gabe daude.

### Egiñak eta argitaratzen oraintxe ari diranak

- I. *Iztegi berezia* (euskeraz itzegiten dakitenentzat)

### **Egiten ari diran lanak**

1. *Ego-ameriketako nobelagintza* (literatura kondaira ta saiakera gisa egiten ari dan lana.

2. *Aljebra* berria euskeraz egiteko asmotan dagoan irakasle gazte batek beste gai onetako asmoen berri jakin nai luke; behar-beharrezko lana auxe.

3. Emakumeentzat euskerazko aldizkari bat beharrezkoa dala-ta ba da oso kezkatua ta lanean asteko gertu dagon idazle bat; bere kideren berri jakin nai luke, noski.

4. Idazle bat ari da: *Sasi giltzak* (Benavente) ta *Judas de Casas* (Trueba) euskeratzen; argitaratzaille baten beharrean da.

5. *Euskal idazleak* (biografiak, antolojia ta bibliografia) oso aurreratua dago.

### **Nobelak eta ipuiak**

Nobela, ipui ta antzerkiak ere ari dira idazten; ona izango litzake gaurkoz iru sail oietako zenbat lan idazten ari geran jakitea; euskeraren gaurko abiadura neurritzeko ona izango litzake-ta. Zientzi-fikzioko nobela bat ere egiten ari da idazle bat.

### **Oarrak**

1. Lan oietako batzuek *euskera batuan* gertatzen ari dira; gai onetaz danok asko kezkatu behar genduke; euskeraren etorria men baitago.

2. Urteteko dauden liburuan berri zehatza eman nai genduke ZA-an; orretarako egillearen laguntza behar dugu, noski. Urten da gerokoa ere berdin. Egilleak esaten ez digunik ez baitugu emen jakiten; edo gutxi beintzat.

Ara gaurko guziak. Gehiago ba dator, berri ugariagoak ematen ahaleginduko naiz.